#68
SEPTEMBRE
2026ko
IRAILA

BEGIZ

MAGAZINE DE
SAINT-PIERRE D'IRUBE
HIRIBURUKO
ALDIZKARIA

SOAKOA ZOOM

Le parc Lizaga a ouvert ses portes
Lizaga parkeko ateak ireki dira

DOSIERRA DOSSIER

Présentation du Conseil municipal
Herriko kontseiluaren aurkezpena

KULTURA CULTURE

Une saison culturelle pour tou.te.s !
Denboraldi kultural bat denentzat!

EDITORIALA **ÉDITO**

Chères Hiriburutar, chers Hiriburutar,
Ce numéro de Begiz Begi revêt pour moi une signification toute particulière. C'est le premier que j'ai le plaisir de vous adresser en tant que maire de Saint-Pierre-d'Irube / Hiriburu.
Je souhaite d'abord vous remercier très sincèrement pour la confiance que vous nous avez accordée lors des élections municipales de mars dernier.
Dès sa prise de fonctions, le Conseil municipal s'est mis au travail avec une ligne directrice claire : agir dans l'intérêt général. Les premiers mois ont été consacrés à la prise en main des dossiers par la nouvelle équipe et à la mise en place d'une gouvernance partagée. Un travail de fond indispensable pour poser les bases du mandat.
L'été qui s'achève a été rythmé par de nombreux moments de convivialité. Les fêtes de la commune ont notamment confirmé le dynamisme de notre vie locale. Je remercie toutes celles et ceux qui ont contribué à leur réussite.
Cet été a également été marqué par plusieurs épisodes de canicule. La commune a activé son plan canicule pour accompagner les personnes vulnérables et engagé une réflexion sur les travaux nécessaires pour mieux adapter ses bâtiments publics aux épisodes de fortes chaleurs liés au changement climatique.
Cet été a enfin été assombri par les terribles incendies qui ont notamment frappé la Gironde et les Landes. Le Conseil municipal a voté une subvention exceptionnelle en soutien aux territoires sinistrés. Un geste modeste, certes, mais qui traduit notre attachement aux valeurs de solidarité.
La rentrée ouvre une nouvelle étape : celle des premiers arbitrages nécessaires à la mise en œuvre du projet municipal.
Cette rentrée marque également une évolution importante pour votre bulletin municipal.
Begiz Begi fait peau neuve avec une nouvelle identité graphique et une nouvelle ligne éditoriale. Notre ambition est d'en faire un magazine plus moderne, qui rende compte avec clarté et transparence de l'action municipale. Il accordera également davantage de place aux initiatives locales et à celles et ceux qui font vivre Hiriburu.
Vous découvrirez notamment, dans le dossier de ce numéro, la nouvelle équipe municipale ainsi qu'un entretien dans lequel je vous présente la vision, les ambitions et la méthode qui guideront notre action au cours des prochaines années.

Je vous souhaite une agréable lecture.

Mathieu Elgoyhen
Maire de Saint-Pierre d'Irube / Hiriburu

Hiriburutar maiteak,
Begiz Begi aldizkari honek erran-nahi berezia du enetzat. Hiriburuko auzapez gisa idazteko plazera dudan lehenbizikoa da.
Lehenik, bihotzetik eskertzen zaituztet joan den martxoko herriko bozetan egin diguzuen konfiantzagatik. Karguan sartu bezain laster, Herriko Kontseilua lanean hasi da gidalerro argiarekin: interes orokorraren alde aritzea. Lehenbiziko hilabeteetan talde berriak dosierrak eskutan hartu ditu eta gobernantza partekatua plantan ezarri. Funtsezko lana agintaldiko oinarriak ezartzeko.
Bururatzen ari den udari memento goxoek eman diote erritmoa. Herriko bestek, bereziki, gure tokiko bizitzaren dinamismoa berretsi dute. Eskerrak eman nahi dizkiet haien arrakastan parte hartu duten guziei.
Uda hau bero handiek ere markatu dute. Herriak beroaldi plana aktibatu du pertsona ahulak laguntzeko eta beharrezko obrei buruz gogoeta abiatu du bere eraikin publikoak hobeki egokitzeko klima-aldaketarengatik gertatu beroaldiei buru egiteko.
Azkenik, Gironda eta Landesak hunki dituzten sute izigarriek uda hau ilundu dute. Herriko Kontseiluak ezohiko dirulaguntza bozkatu du lurralde kaltetuen sustengatzeko. Jestu xumea izanik ere, elkartasun baloreendako dugun atxikimendua erakusten du.
Sartzean urrats berri bat abiatuko dugu: herri proiektuen obratzeko beharrezkoak diren erabakien garaia izanen da. Sartze honek bilakaera garrantzitsua markatuko du ere zuen herriko aldizkariarentzat.
Izan ere, Begiz Begi aldatuko da, identitate grafiko berriarekin eta norabide editorial berriarekin. Gure xedea da aldizkari modernoagoa egitea, herri ekintzen berri argiki eta gardentasunez emanen duena. Tokiko ekimenei eta Hiriburu biziarazten dutenei leku gehiago emanen die. Zenbaki honetako dosierrean herri talde berria ezagutuko duzue, baita heldu diren urteetako gure ekintzak gidatuko dituzten ikuspegia, xedeak eta metodoa aurkezten ditudan elkarrizketa ere.

Irakurketa on.

Mathieu Elgoyhen
Hiriburuko Auzapeza

AURKIBIDEA SOMMAIRE

04
IRUDITAN
EN IMAGES

06
HERRIKO BIZITZA
VIE MUNICIPALE

20
HEZKUNTZA GAZTERIA
ÉDUCATION JEUNESSE

23
BIZI INGURUNEA
CADRE DE VIE

24
TRANTSIZIO EKOLOGIKOA
TRANSITION ÉCOLOGIQUE

26
ELKARTASUNA
SOLIDARITÉS

34
ELKARTE BIZITZA
VIE ASSOCIATIVE

35
EGOERA ZIBILA
ÉTAT CIVIL

36
HERRIKO EGUTEGIA
AGENDA MUNICIPAL

08
SOAKOA
ZOOM
Lizaga parkeko ateak ireki dira
Le parc Lizaga a ouvert ses portes

11
DOSIERRA
LE DOSSIER
Herriko kontseiluaren aurkezpena
Présentation du Conseil municipal

28
KULTURA
CULTURE
Denboraldi kultural bat denentzat!
Une saison culturelle pour tou.te.s !

BEGIZ BEGI www.saintpierredirube.fr | f

Hiriburu Saint-Pierre d'Irube

Mairie de Saint-Pierre d'Irube | 1 Plaza Berri, 64990 Saint-Pierre d'Irube | 05 59 44 15 27 | mairie@saintpierredirube.fr
Les articles peuvent être lus en français et en basque. Directeur de publication : Mathieu Elgoyhen, maire de Saint-Pierre d'Irube/Hiriburu | Responsable de la rédaction : Marie Sallaberry | Ont participé à ce numéro : Fabienne Gorostegui, Audrey Siméon-Castanier, Marie Surzur, Maëva Machicote | Traduction : Joana Pochelu | © Photo de couverture : Mathieu Prat.© Photos : Mathieu Prat, d'Une ville à l'autre, nala.argazki, L.d_Abdoville, Ville de Saint-Pierre d'Irube | Création graphique et mise en page : Flora Roliers | Impression : Abéradère - impression à Bayonne | **Ce bulletin municipal est imprimé sur du papier certifié 100% PEFC et 100 % recyclable.** Tirage : 3 500 exemplaires.

01.03

↑
IHAUTERIA
CARNAVAL

17.03

←
KORRIKA TTIPI

27.03

↑
OUROUSPOURE ESKOLAREN IKUSGARRIA
SPECTACLE DE L'ÉCOLE OUROUSPOURE

26.04

↓
LANDAKETA TAILERRA
UDABERRIKO BESTAREN KARIETARA
ATELIER DE PLANTATION
PENDANT LA FÊTE DU PRINTEMPS

01.05

↑
MAIATZ-LOREAREN LASTERKETA
COURSE DU MUGUET

↓
1945EKO MAIATZAREN 8KO GARAIPENAREN ZEREMONIA
CÉRÉMONIE DE LA VICTOIRE DU 8 MAI 1945

08.05

22.05

↑
GURASHOW KONTZERTUA LA PERLE GELAN
CONCERT DE GURASHOW À LA PERLE

↓
HIRUAK DANTZAN,
JUAN ANTONIO URBELTZI OMENALDIA
HIRUAK DANTZAN,
HOMMAGE À JUAN ANTONIO URBELTZ

23.05

13.06

←
BASTÉ-QUIETA
ESKOLAKO BESTA
FÊTE DE L'ÉCOLE
BASTÉ-QUIETA

↓
KOMEDIA MUSIKALA – ORIGINE L ELKARTEA
COMÉDIE MUSICALE - ASSOCIATION ORIGINE L

18.06

HIRIBURU À LA FÊTE !
HIRIBURU BESTAN!

Saint-Pierre d'Irube a vécu fin juin au rythme traditionnel des Fêtes patronales. Organisées pendant plusieurs mois par les jeunes du Comité, elles ont une nouvelle fois connu un franc succès. Retour sur ces trois jours de partage avec Teo Cotelo et Lilian Landart, présidents du Comité des Fêtes.

Hiriburu herriko besten erritmo tradizionalean murgildu da joan den ekain bukaeran. Komiteko gazteek zenbait hilabetez antolatu ondoan, bestek berriz ere arrakasta handia bildu dute. Hiru besta egun horiek aipatzen dizkigute Teo Cotelo eta Lilian Landart Komiteko lehendakariek.

Après ces trois jours de fêtes, quel bilan tirez-vous de cette édition 2026 ?

Téo Cotelo : Le bilan est très positif. Nous avons eu de bons retours que ce soit de la part de la municipalité, des habitants ou des associations. le Comité a une belle dynamique, les fêtes se déroulent toujours bien.

Que représente concrètement l'organisation des Fêtes patronales ?

Lilian Landart : L'organisation prend beaucoup de temps. Nous commençons à travailler sur la prochaine édition dès le mois de novembre avec l'écriture du programme, la recherche des artistes, le contact avec les associations, la prospection pour la publicité, la préparation des quêtes, etc.

Qu'est-ce qui fait selon vous l'identité des Fêtes de la commune ?

LL : Ce sont des fêtes pensées pour toutes les générations, des plus jeunes aux plus âgées. On souhaite vraiment garder cette notion d'intergénérationnalité.

TC : Notre programme donne la priorité à tous les Hiriburutar, notamment par la présence importante du tissu associatif de la commune. La collaboration avec tous les acteurs qui font vivre la commune, c'est ça la force des fêtes de Saint-Pierre d'Irube. Nous avons cette volonté : que tout le monde soit au cœur des fêtes.

Que diriez-vous à un jeune qui aimerait rejoindre le Comité des Fêtes ?

LL : De se lancer !* On travaille oui, mais on s'amuse aussi. Et puis cela permet de rencontrer des personnes d'horizons différents.

TC : Une expérience au Comité, c'est une aide dans la vie d'après, pour développer des compétences professionnelles et relationnelles. Et puis le Comité ce n'est pas seulement pendant les fêtes, ce sont aussi de nombreux événements dans l'année (Repas du Comité, Tournoi de Foot...) !

*À partir de 18 ans.
Contactez le Comité sur Instagram @comitespi.

Hiru besta egun horien ondotik, zer dira 2026ko besten emaitzak?

Téo Cotelo: Biziki bilan positiboa da. Oihartzun onak ukan ditugu, bai hautetsien partez, bai herritarren, eta elkarteen partez. Komiteak dinamika ederra du, ongi doa eta bestak beti ongi iragaten dira.

Zer da, konkretuki, herriko besten antolatzea?

Lilian Landart: Antolaketak denbora anitz hartzen du. Azarotik goiti hasten gara ondoko edizioa lantzen, programa idazten, artistak aurkitzen, elkarteekin harremanetan jartzen, publizitatea bilatzen, eskeak prestatzen, etab.

Zuen iduriko, zerk definitzen du herriko besten nortasuna?

LL: Belaunaldi guzientzat pentsatu bestak dira, gazteenetik zaharrenera. Belaunaldien arteko alde hori atxiki nahi dugu.

TC: Gure programak hiriburutar guziak lehenesten ditu, bereziki herriko elkarte egitura zabalaren bidez. Herriari bizia ematen dioten eragile guzien arteko lankidetza da Hiriburuko besten indarra. Xede hori dugu: denak besten erdian izatea.

Zer erran Besta Komitean sartu nahi duen gazte bati?

LL: Komitean sartzea!* Lan egiten dugu, baina jostatzen ere gara. Eta ingurumen desberdinetatik jin pertsonak ezagutzeko parada da.

TC: Komiteko esperientzia balio handikoa da bizitzan, gaitasun profesionalak eta pertsonalak garatzeko. Eta Komitea ez da besten denboran bakarrik, urte guzian ekitaldiak antolatzen ditugu (Komitearen apairua, Futbol txapelketa...) !

*18 urtetik goiti. Jar zaitez harremanetan Komitearekin Instagramen: @comitespi

Ainhoa Bascoulès Frantziako zaldiketa txapelduna

14 urteko Ainhoa Bascoulès eta haren behorra Jamaretti Frantziako zaldizko oztopo jauzi txapeldun izendatu dituzte “Junior eta gutiagokoen” sailean 1 metroko oztopoetan, Frantziako Open Generali txapelketaren karietara uztail hastapenean, Lamotte-Beuvron zentro federalean.
Ainhoa hiriburutarra da eta Basté-Quieta eskolako eta Aturri kolegioko ikasle ohia. Avaren zalditegiko Avaren Akademian entrenatzen da, non, zaldiketa kurtsoez gain, prestaketa fisiko eta mentala eta eskola-sendotzea segitzen baititu zientzia eta ingelesean.
Goresmenak, Ainhoa!

Ainhoa Bascoulès, championne de France d’équitation

Ainhoa Bascoulès, 14 ans, et sa jument Jamaretti ont été sacrées championnes de France d’équitation de saut d’obstacles dans la catégorie d’âge “Junior et moins” sur la hauteur d’obstacles de 1 m, lors de la semaine des Championnats de France Open Generali qui s’est déroulée début juillet au centre fédéral de Lamotte-Beuvron. Ainhoa, habitante de la commune et ancienne élève de l’école Basté-Quieta et du collège Aturri, s’entraîne au sein de l’Avaren Academy aux écuries d’Avaren à Saint-Martin-de-Seignanx, où, en plus des cours d’équitation, elle suit une préparation physique et mentale et un renforcement scolaire en sciences et en anglais.
Félicitations Ainhoa !

LE RESTAURANT DU MUR À GAUCHE FAIT PEAU NEUVE AVEC UN NOUVEAU CONCEPT : PALETA

Le restaurant propose une cuisine gourmande composée de produits de qualité, de saison et en circuit court.
• 1 Menu du jour : 18,50 € (entrée, plat, dessert)
• 1 carte composée de 3 entrées, 4 plats et 3 desserts
• 1 carte de tapas disponible les jeudis, vendredis et samedis soir
Une adresse à venir découvrir sans plus attendre !

EZKER PARETAKO JATETXEA BERRITU DA KONTZEPTU BERRI BATEKIN: PALETA

Jatetxeak kalitatezko, sasoiko eta zirkuitu laburreko ekoizpenekin egin jaki goxoak proposatzen ditu.
• Eguneko menua: 18,5 € (lehen platera, platera nagusia, deserta)
• 1 karta, 3 lehen platerarekin, 4 plater nagusirekin eta 3 desertarekin
• 1 pintxo karta ostegun, ostiral eta larunbat gauero
Berehala ezagutzeko jatetxea!

Ouverture du mardi au samedi
Irekia asteartetik larunbatera

Céline Harisquiry - Émilie Larre

Buru berriak Herriko Etxeko zerbitzuetan

Herriko Etxeak hiru langile berri errezibitu ditu. Rose Latret Giza Baliabideen zerbitzuan sartu da. Céline Harisquiry Animazioen zerbitzuan eta Ourouspoure eskolako eskolaldi inguruko zuzendaritzan. Azkenik, Émilie Larre Basté-Quieta eskolako eskolaldi inguruko zuzendaritzan izendatua izan da.
Ongi etorri hiruei!

De nouveaux visages au sein des services de la mairie

La mairie a accueilli trois nouveaux agents. Rose Lartet a rejoint le service des Ressources humaines. Céline Harisquiry a pris ses fonctions à la direction du périscolaire de l’école Ourouspoure ainsi qu’au service animations. Enfin, Émilie Larre a été nommée à la direction du périscolaire du groupe scolaire Basté-Quieta. Bienvenue à elles trois !

LIZAGA PARKEKO ATEAK IREKI DIRA
LE PARC LIZAGA A OUVERT SES PORTES

Joan den apirilaren 26an, Lizaga parkeko ateak lehenbiziko aldiz ireki dira. Ezagutu ezazu herri erdian den lorategi hori.

Le 26 avril dernier, le parc Lizaga a ouvert ses portes au public. Découvrez ce jardin public en cœur de ville.

Herriaren erdian kokatua den berdegunea da Lizaga parkea, eta egun 1,2 hektarea zabal da. Kasik urte bat eta erdiz berritze-obrak izan ondoan, orain denei irekia da.

"*Herensugea erabili dugu, usu aipatzen baitzen programan. Herriko ikurra denez, proiektuaren gai nagusia bilakatu da*", Jean-Philippe David, paisaia-antolatzailea.

"D'une ville à l'autre" hirigintza-bulegoak herria lagundu du Lizaga lorategi publikoa egiteko. Proiektu hori herriko elementu mitiko baten inguruan sortu zen: herensugea.

Zinezko hari gorria da: lorategiko sarreratik ibarbideraino hedatzen da, banbu-oihan ondoraino. Batzuetan josteta da, batzuetan itzal-egitura, batzuetan pasagunea, eta azkenik, gazteluaren gibeletik Lizagako ibilaldira eta haren iturrira eramaten duen pasabidea.

Flora aniztuna

Pentze loretsuak kolore biziak eskaintzen ditu eta udaberritik udazkenera etengabe liliak baditu.

Pentze loretsua lurra itzultzen ez den pentzea da, beraz, lore mota desberdin anitz ditu. Lore espezie anitz baitira, klima aldaketak gutiago eragiten du leku mota horretan.

Begiendako ikusgarria baino gehiago, teknika horrek bioaniztasunerako egiazko babeslekua sortzen du, bereziki intsektu polinizatzaileak (erleak, pinpirinak) hartuz.

Platano eta hortentsia etorbide historikoari dagokionez, programan atxiki da. Eremu horretako egiazko identitatea da eta Lizaga mediatekara eramaten du orain.

Véritable écrin de verdure en cœur de ville, le parc Lizaga compte aujourd'hui 1,2 hectares.

Réalisé en près d'un an et demi, cet espace est désormais ouvert à tous. « *Nous nous sommes servis du dragon, qui revenait régulièrement dans le programme. Étant le symbole de la commune, il est devenu le fil rouge du projet.* » Jean-Philippe David, paysagiste.

Le cabinet d'urbanisme D'une ville à l'autre a accompagné la commune dans la réalisation de son parc public Lizaga. Ce projet a été réfléchi autour de l'élément légendaire du lieu : le dragon.

Le dragon relie chaque partie du parc : il s'élance de l'entrée du parc jusqu'au talweg, près de la forêt de bambous. Il est tantôt jeu, tantôt ombrière, tantôt passage, puis enfin passerelle pour rejoindre, par l'arrière du château, la balade de Lizaga et sa fontaine.

Une flore diversifiée

La prairie fleurie offre un spectacle coloré et permet une floraison continue du printemps jusqu'à l'automne.

Une prairie fleurie est une prairie non labourée, présentant une diversité de fleurs importante. Par la diversité des espèces de fleurs, ce type d'espace est moins impacté par le changement climatique.

En plus d'un spectacle pour les yeux, cette technique permet de créer un véritable refuge pour la biodiversité en accueillant notamment les insectes pollinisateurs (abeilles, papillons).

Quant à l'historique allée de platanes et d'hortensias, elle a été préservée dans le programme. Véritable identité du lieu, elle mène désormais à la médiathèque Lizaga.

CHIFFRES CLÉS
ZENBAKI NAGUSIAK

54
zuhaitz **arbres**

2 805
zuhaixka **arbustes**

14 545
landare **plantes**

loratzen dira parkean, eta leku natural pausagarria sortzen dute.
s'épanouissent aujourd'hui au sein du parc.

SINBOLO BIHURTU HERENSUGEA

Hiriburutarrek ongi ezagutzen duten herensugeak (ontsalaz) hiru buru ditu. Kondairak dio Milafrangako bi neska gazte bahitu zituela, eta Lizagaren jabea zen Beltzuntzeko familiako Gaston-Arnaud zaldun ausartak haien libratzea erabaki zuela. Borroka gogor baten ondotik, buruetarik bat kasik moztua ukan zuen herensugeak, zalduna berarekin eraman zuen, eta biak Errobi ibaira erori ziren. Ondotik, Beltzuntzeko familiak herensugea bere armarrian gehitzeko eskubidea ukan zuen, eta egun herriaren ikurra da.

UN DRAGON DEVENU SYMBOLE

Ce dragon, bien connu des Hiriburutar, possède (normalement) trois têtes. La légende raconte qu'il aurait enlevé deux jeunes filles de Villefranque, et qu'un valeureux chevalier, Gaston-Arnaud de Beltzuntze, de la famille propriétaire de Lizaga, décida de les délivrer. Durant leur combat acharné, la bête, dont une des têtes fut quasi tranchée, entraîna le chevalier, et ils sombrèrent tous deux dans la Nive. La famille de Beltzuntze eut le droit, par la suite, d'ajouter le dragon à son blason, devenu l'emblème de la commune aujourd'hui.

+ D'INFOS

ARGIBIDE *

Pentze loretsua zerbitzu teknikoek dute entretenitzen biziki karbono aztarna apalarekin, urtean behin baizik ez baitute belarra mozten, ohiko soropil bat hamabost egun guziez mozten delarik. Mozketa loraldi-zikloaren bukaeran egiten da, pentzearen ereintza naturala egin dadin.

L'entretien de la prairie fleurie, réalisé par les services techniques municipaux, a une empreinte carbone très faible du fait d'un seul fauchage par an, contre une tonte tous les quinze jours pour une pelouse classique. La fauche est réalisée en fin de cycle de floraison afin de permettre le réensemencement naturel de la prairie.

Estreinaldia udaberriko eguzkiarekin

Lizaga parkeak 2026ko apirilaren 26an ireki zituen ateak, Udaberriko 2. festibalaren karietara. Goiz eder horretan mediatekako boluntarioek, Kultur Ekintzarako Misioak, Bil ta Garbik, L'Effet Nature elkarteak, Cathy Tassy erlezainak eta AIZUk (Ametza Ikastola) erakusmahaiak animatu zituzten. Antzerki ibiltari batek bururatu zuen Udaberriko festibala, bisitariak parkearen eta haren herensugearen ezagutzera eramanez.

Une inauguration sous le soleil du printemps

Le parc Lizaga a ouvert ses portes le 26 avril 2026 à l'occasion de la deuxième édition de la Fête du printemps. Cette belle matinée a été rythmée par des stands animés par les bénévoles de la médiathèque, la Mission d'Action Culturelle, Bil ta Garbi, L'Effet Nature, Cathy Tassy, apicultrice, et AIZU (Ametza Ikastola).
Une déambulation théâtrale a clôturé la Fête du printemps en entraînant les visiteurs à la découverte du parc et de son dragon.

Lizaga parkea egunero irekia da 9:00etatik 20:00etara apirilaren 1etik urriaren 31ra (udako tenoreak), eta 9:00etatik 18:00etara azaroaren 1etik martxoaren 31ra (neguko tenoreak).
Parkearen barne-araudia Herriko Etxearen webgunean aurki dezakezu, "HERRIA" → "PARKEAK ETA IBILALDIAK" atalean.

Le parc Lizaga est ouvert tous les jours de 9h à 20h du 1er avril au 31 octobre (horaires d'été) et de 9h à 18h du 1er novembre au 31 mars (horaires d'hiver).
Retrouvez le règlement intérieur sur le site de la commune, rubrique « LA VILLE » → « PARCS ET BALADES ».

Parkeko elementu nagusiak
Les grandes entitées du parc

1. Lizaga parkearen sarrera
   Entrée du parc LIZAGA
2. Platanoen etorbide handia
   Grande allée des platanes
3. Bizikleta-aparkalekua
   Parking vélos
4. Sugulna jolas-parkea (3-10 urte)
   Aire de jeux du Sugulna 3-10 ans
5. Itzala eta sastraka
   Ombrière et sous-bois
6. Lizagako pasealekuarekin lotura
   Liaison à la balade Lizaga
7. Antzerki berdea
   Théâtre de verdure
8. Komunak
   Sanitaires publics
9. Lizaga Mediateka
   Médiathèque Lizaga

PRÉSENTATION DU CONSEIL MUNICIPAL
HERRIKO KONTSEILUAREN AURKEZPENA

Le 15 mars dernier, les habitants de Saint-Pierre d'Irube ont élu la liste Hiriburu Maita - Aimer Saint-Pierre d'Irube. À la suite de la démission d'Alain Iriart de ses fonctions de maire pour se consacrer à la présidence de la Communauté d'Agglomération Pays Basque, le Conseil municipal a élu Mathieu Elgoyhen, le 18 mai 2026, pour lui succéder. Le Conseil municipal est aujourd'hui composé de 29 conseillers, dont 8 adjoints et une conseillère déléguée. Dans ce dossier, découvrez la nouvelle équipe municipale et le fonctionnement de la commune.

Joan den martxoaren 15ean, Hiriburuko biztanleek Hiriburu Maita - Aimer Saint-Pierre d'Irube zerrenda hautatu zuten. Alain Iriartek auzapez kargua utzi ondoan Euskal Hirigune Elkargoko lehendakaritza kargua betetzeko, Herriko Kontseiluak Mathieu Elgoyhen hautatu zuen haren ordain izateko, 2026ko maiatzaren 18an. Herriko Kontseilua 29 kontseilariz osatua da egun, eta horien artean 8 auzapezorde bada eta kontseilari ordezkari bat. Dosier honen bidez ezagutu ezazu herriko talde berria eta herriaren funtzionamendua.

ELKARRIZKETA **ENTRETIEN AVEC**

MATHIEU ELGOYHEN

Après son élection à la tête de la commune, Mathieu Elgoyhen nous livre sa vision et ses ambitions pour Saint-Pierre d'Irube / Hiriburu.

Auzapez hautatu ondoan, Mathieu Elgoyhenek Hiribururako duen ikuspegia eta xedeak aurkezten dizkigu.

Vous êtes maire depuis un peu plus de trois mois. Quel regard portez-vous sur ce début de mandat ?

Il a été particulièrement intense et en même temps passionnant.
Le premier mot qui me vient à l'esprit est responsabilité. Être maire, c'est être au service de tous les habitants, avec le souci constant de l'intérêt général.
Le deuxième est détermination. Les habitants nous ont accordé leur confiance. Il nous appartient désormais de transformer nos engagements en réalisations concrètes.

Vous succédez à Alain Iriart, devenu président de la Communauté d'Agglomération Pays Basque. Comment abordez-vous cette succession ?

J'ai eu la chance de travailler à ses côtés pendant près de vingt ans, d'abord comme conseiller municipal puis comme adjoint. J'ai beaucoup appris auprès de lui et je le remercie pour son engagement au service de la commune.
Le maître mot est continuité : continuité des valeurs qui nous rassemblent – solidarité, proximité, engagement au service du territoire – mais aussi des projets engagés pour Hiriburu.
J'y apporterai naturellement ma sensibilité et ma manière de travailler.

Le Conseil municipal a été profondément renouvelé. Quelle place souhaitez-vous donner aux élus et aux habitants dans les décisions de la commune ?

Avec 20 nouveaux élus sur 29 conseillers, le renouvellement est en effet important.
Cette équipe est à l'image de notre commune. Elle rassemble des femmes et des hommes d'horizons différents, de toutes les générations et de tous les quartiers, unis par la même volonté de s'engager au service d'Hiriburu.

> **Faire en sorte que Saint-Pierre d'Irube demeure une commune vivante, dynamique et agréable à vivre"**

J'attends de chaque élu qu'il soit à la fois force de proposition et à l'écoute des habitants.
Nous souhaitons également associer les habitants aux décisions importantes qui concernent l'avenir de notre commune. Écouter, expliquer, construire ensemble : c'est ainsi que je conçois l'action municipale.

Quelle est votre priorité numéro un pour la commune ?

Je préfère parler d'ambition plutôt que de priorité. Notre ambition est simple : faire en sorte que Saint-Pierre d'Irube demeure une commune vivante, dynamique et agréable à vivre.
Une commune où l'on peut bien grandir, bien vieillir, se loger, s'engager dans la vie associative, accéder à des services publics de qualité et préserver un cadre de vie auquel nous sommes tous attachés.

Comment allez-vous transformer cette ambition en actions concrètes ?

La méthode est essentielle. J'ai la chance de pouvoir compter sur une équipe municipale motivée et investie, sur des agents compétents et sur une commune qui dispose de nombreux atouts.
Avec les élus et les services municipaux, nous élaborons actuellement la feuille de route du mandat. Elle vise à traduire nos engagements, enrichis par certaines propositions recueillies auprès de la population pendant la campagne, en actions programmées, avec, pour chacune, un calendrier de mise en œuvre et un budget prévisionnel.

Je crois beaucoup à l'intelligence collective. Les meilleurs projets sont souvent ceux qui se construisent ensemble.

Quels seront les grands défis des prochaines années ?

Ils sont nombreux.
Il y a bien sûr le logement, qui est une préoccupation majeure sur notre territoire. Nous devrons répondre à ce besoin, tout en maîtrisant notre développement afin de préserver l'identité d'Hiriburu et sa qualité de vie.
La transition écologique est un autre défi majeur. Beaucoup d'actions ont déjà été engagées lors du précédent mandat.

Écouter, expliquer, construire ensemble : c'est ainsi que je conçois l'action municipale"

Nous les poursuivrons et les intensifierons, notamment en matière de sobriété énergétique, de mobilités et de préservation des espaces naturels.
L'Éducation, les Solidarités, la Culture et la langue basque continueront, elles aussi, à être au cœur de nos priorités car elles façonnent l'identité de notre commune et son avenir.

Vous parlez souvent de "vivre-ensemble". Qu'est-ce que cela signifie pour vous ?

Selon moi, une commune ne se résume pas à ses bâtiments, à ses routes ou à ses équipements. Elle vit avant tout grâce aux femmes et aux hommes qui s'y investissent chaque jour : les habitants, les associations, les commerçants, les entreprises, les enseignants, les agents municipaux, les bénévoles, les élus…
Notre rôle est de préserver cette richesse, de favoriser les rencontres, de soutenir les initiatives et de permettre à chacun de trouver sa place à Saint-Pierre d'Irube.

Badu hiru hilabete baino gehixago auzapez zarela. Zer iruditzen zaizu zure agintaldiaren hastapen hau?

Biziki bizia izan da eta aldi berean zoragarria.
Bururatzen zaidan lehenbiziko hitza erantzukizuna da. Auzapez izatea herritar guzien zerbitzuko izatea da, eta beti interes orokorraren alde aritzea.
Bigarrena, determinazioa da. Herritarrek konfiantza egin digute. Orain guri da gure engaiamenduak konkretuki obratzea.

Alain Iriarten ordaina zara, Euskal Hirigune Elkargoko lehendakari bihurtu baita. Nola lotu zara segida horri?

Hogei bat urtez harekin lan egiteko xantza ukan dut, lehenik herriko kontseilari gisa eta gero auzapezorde gisa. Anitz ikasi dut haren ondoan, eta herriaren aldeko haren engaiamenduagatik eskertzen dut.
Jarraipena da hitz nagusia: batzen gaituzten baloreen jarraipena –elkartasuna, hurbiltasuna, engaiamendua lurraldearen zerbitzuko– baita Hiribururentzat proiektu engaiatuak ere.
Bistan da, ene sentsibilitatea eta lan egiteko manera ekarriko ditut.

Herriko Kontseilua errotik aldatua izan da. Zer leku eman nahi zenieke hautetsiei eta herritarrei herriko erabakietan?

29 kontseilarietatik 20 berriak dira, berritzea zinez sakona da, beraz. Talde hori gure herriaren idurikoa da. Ingurumen desberdinetarik jin emazteak eta gizonak biltzen ditu, belaunaldi eta auzo guzietakoak, Hiriburu zerbitzatzeko engaiamendu berak elkartuak.
Hautetsi bakoitzak proposamenak egitea eta herritarren zerbitzuko izatea espero dut.
Nahi ditugu ere herritarrak inplikatu gure herriaren etorkizunari lotu erabaki garrantzitsuetan.
Entzutea, esplikatzea, elkarrekin eraikitzea: horrela dut ikusten herri-ekintza.

Gure anbizioa sinplea da: Hiriburu herri bizia, dinamikoa eta bizitzeko laketa izaten segitzea bermatzea"

Zein da zure lehentasuna herriarentzat?

Nahiago dut anbizioa aipatu lehentasuna baino. Gure anbizioa sinplea da: Hiriburu herri bizia, dinamikoa eta bizitzeko laketa izaten segitzea bermatzea.
Ongi handitu, ongi zahartu, etxebizitza ona aurkitu, elkarte bizitzan engaiatu, kalitatezko zerbitzu publikoak eskuratu eta denak atxikiak garen bizi-ingurunea zaindu ahal izateko moduko herri bat.

Nola gauzatuko duzu anbizio hori ekintza zehatzetan?

Metodoa funtsezkoa da. Xantza dut talde motibatu eta engaiatu batekin lan egitea, gaitasunak dituzten langileekin eta abantaila anitz dituen herri batean.
Hautetsiekin eta herriko zerbitzuekin batera, agintaldi honetarako bide-orria apailatzen ari gara.
Gure engaiamenduak betetzea du xede, kanpaina denboran herritarren artean bildu proposamenekin aberasturik eta ekintza programatuekin, horietarik bakoitza obratze-egutegi batekin eta aurreikusi aurrekontuarekin.
Adimen kolektiboan zinez sinesten dut. Proiektu hoberenak usu elkarrekin eraikitzen direnak dira.

Zein izanen dira heldu diren urteetako erronka nagusiak?

Bada franko.
Bistan da, bizitegien erronka dago, gaur egun gure lurraldean kezka handia baita. Behar horri erantzun behar diogu, Hiribururen nortasuna eta bizi-kalitatea zaintzeko gure garapena kudeatuz.
Trantsizio ekologikoa beste erronka handi bat da. Aitzineko agintaldian ekintza anitz abiatu ziren jadanik. Segituko ditugu eta indartuko, bereziki energia-soiltasunari, mugikortasunari eta espazio naturalen zaintzeari dagokienez.
Hezkuntzak, Elkartasunak, Kulturak eta Euskarak gure lehentasunen erdigunean segituko dute, gure herriaren nortasuna eta haren etorkizuna moldatzen baitute.

Anitzetan "elkarbizitza" aipatzen duzu. Zer erran nahi du, zuretako?

Ene ustez, herri bat ez dute soilik bere eraikinek, errepideek edo ekipamenduek definitzen. Egunero engaiatzen diren emazte eta gizonei esker bizi da: herritarrak, elkarteak, merkatariak, enpresak, irakasleak, herriko langileak, boluntarioak, hautetsiak…
Gure eginkizuna da aberastasun horren zaintzea, loturak sustatzea, ekimenak sustengatzea eta bakoitzak Hiriburun bere lekua aurkitzeko parada eskaintzea.

Entzutea, esplikatzea, elkarrekin eraikitzea: horrela dut ikusten herri-ekintza"

AUZAPEZORDEAK LES ADJOINT.E.S

Fabienne GOROSTEGUI

1ère adjointe : Culture, Médiathèque

1. auzapezordea: Kultura, Mediateka

48 ans - urte | Candelé

Native de Saint-Pierre d'Irube, j'y habite depuis bien des années. J'ai intégré l'équipe municipale lors des élections de 2020, ce qui fut une grande première, et je réitère aujourd'hui cette expérience car le domaine de la Culture m'intéresse particulièrement. Surtout, c'est cette aventure collective et le fait de participer au plus près aux coulisses du fonctionnement de ma commune qui m'animent, afin de porter des valeurs auxquelles je crois profondément : le logement et la culture pour tous, le bien-vivre ensemble qui passe par un cadre de vie de qualité, ou encore le soutien aux associations.

Hiriburun sortua naiz eta badu urteak hemen bizi naizela. 2020ko hauteskundeetan sartu nintzen herri taldean, eta hori lehen aldia izan zen enetzat, eta esperientzia hau errepikatu dut kultura eta komunikazio arloek bereziki interesatzen nautelako. Sustut, abentura kolektibo honek eta ene herriko funtzionamenduan gibelaldetik parte hartzeko aukerak motibatzen naute, sakonki sinesten ditudan baloreak defendatzeko aukera baitut: etxebizitza eta kultura denentzat, elkarbizitza kalitatezko bizi-ingurune baten eta tokiko elkarteen sustenguaren bidez.

Xabi DUBLANC

2è adjoint : Éducation

2. auzapezordea: Hezkuntza

46 ans - urte | Harrixuria

Professeur des écoles, j'ai déjà été élu lors du mandat précédent, et je me suis particulièrement impliqué dans le domaine de l'Éducation. C'est pour cela que j'ai souhaité poursuivre mon engagement au sein de la nouvelle équipe. Je désire ainsi mener de nouveaux projets dans les domaines de l'Éducation, de la Culture, des Sports et de la langue basque, mais tout en restant vraiment proche et à l'écoute des habitants de la commune de Saint-Pierre d'Irube.

Lehen mailako irakasle gisa, aitzineko agintaldian jadanik hautetsi nintzen eta hezkuntzan inplikatua nintzen bereziki. Horregatik, talde berriaren baitan ene engaiamendua segitu nahi nuen. Proiektu berriak eraman nahi ditut hezkuntzan, kulturan, kirolean eta euskararen alde, Hiriburuko jendeei eta herritarrei hurbil egonez.

Sabine LANDART

3è adjointe : Solidarités

3. auzapezordea: Elkartasuna

50 ans - urte | Basté

Résidant à Saint-Pierre d'Irube depuis une quinzaine d'années, je m'engage pour un second mandat afin de voir l'aboutissement des projets qui ont été engagés lors du mandat précédent. Je souhaite également travailler au développement des initiatives portées par la nouvelle équipe avec la construction de logements, d'habitat participatif avec des seniors et des adultes en situation de handicap, et également des actions visant à favoriser le bien-vivre pour chaque étape de la vie des habitants de Saint-Pierre d'Irube.

Badu hamabost bat urte Hiriburun bizi naizela. Bigarren agintaldirako aurkeztu naiz aitzineko agintaldian hasi proiektuak bururatzen ikusteko, baina baita talde berriak bultzatu proiektuak lantzeko ere, besteak beste, etxebizitzak eraikitzeko, adinekoendako eta ahalmen urriko helduendako bizileku partekatuak eta Hiriburuko biztanleen bizitzako urrats guzietan ongizatea sustatzeko proiektuak eramateko.

Jean-Claude IRIART

4è adjoint : Cadre de vie, Bâtiments, Voirie et Réseaux

4. auzapezordea: Bizi-ingurunea, Eraikinak, Errepideak eta Sareak

63 ans - urte | Basté

Retraité depuis un an, j'habite au sein de la commune depuis 40 ans. Je m'y suis marié, j'ai deux enfants, quatre petits-enfants et je me plais bien dans cette ville que j'ai vu grandir ; les infrastructures ont suivi et ça, je l'apprécie beaucoup. Mes enfants ont participé à de nombreuses activités : judo, pelote, danse basque... Ces activités continuent encore aujourd'hui, et j'en suis très heureux. J'ai vécu l'évolution démographique et structurelle de la commune ; la qualifier de « la ville du quart d'heure » a tout son sens ! En m'engageant, je me rends disponible pour participer à l'amélioration du cadre de vie des Hiriburutar.

Badu urte bat erretretan nagoela, eta badu 40 urte Hiriburun bizi naizela. Hemen ezkondu nintzen, bi haur ukan ditut, lau haur ttipi, eta biziki laket naiz garatzen ikusi dudan herri honetan; azpiegiturak ere zabaldu direlako, eta hori prezagarria da. Ene haurrek aktibitate anitzetan parte hartu zuten: judoan, pilotan, euskal dantzan... Jarduera horiek gaur egun ere segitzen dute, eta hobe. Herriaren bilakaera demografikoa eta estrukturala ikusi dut; "laurden bateko herria" deitzea arrunt egokia da! Engaiatuz, hiriburutarren bizi-ingurunea hobetzen parte hartzeko prest nago.

Elena OTHONDO

5è adjointe : Animations, Vie associative et Euskara

5. auzapezordea: Animazioak, Elkarte bizitza eta Euskara

34 ans - urte | Oiharzabalenia

